

TTXOR-TTXOR ETA KULTURAREN INGURUKO HAINBAT GOGOETAK

Oier Gillan

1 995. urteko ekainaren 9an ireki zituen Oreretako Mikelazulo kultur elkarteak bere atea. Hamar urte pasa dira jada eta, abagune horretaz baliatuz, maiatzean hasita ekitaldi ugari antolatu dituzte Mikelazulokoek. Egun hauen xedea hala ere iragana baino gehiago oraina eta etorkizuna ospatzea izan da, hamar urteotan bezala egun hauetan zehar sormena gozatuz, bultzatuz eta aldarrikatuz.

Hamar urteotako gogoetak plazaratu nahi izan dituzte halaber Mikelazulokoek. Horretarako sortu dute Ttor-ttor izeneko pertsonaia, kulturaren inguruko hainbat gogoeta egiten dituen antzerki ikaslea, Pasai San Pedroko burututako ikuskizunean zein Mikelazuloko eskainitako erakusketan (batean zein bestean, artista ugarien parte hartzearekin) bere isla izan duen izaera biziko pertsonaia.

**AITZAKIARIK EZ!!!
edo nola sor litzakeen
patata batek eskenatoki batean
zirkulo konzentrikoak**



Ttor-ttor (2 ttor) ez da aktorea, baina antzerkia maite du. Ttor-ttor ez da poeta, baina antzerkia poesia akzioan dela uste du. Antzerkiaren bidez ametsak irudikatuz, amets horiek pixkat errealagoak bilakatuko direlakoan bizi da.

Ttor-ttor antzerki eskola batean dabil murgildurik, antzoki zahar batean dagoen eskolan. Antzerki klaseak jasotzea noski, garestia da. Halako batean Ttor-ttorri instituzioek ematen dioten beka eskasa kendu egin diote, eta diru iturririk ezean, antzerkia egiteko beharrarekin gelditu da aurrez aurre. Zenbateraino merezi du borrokatzeak horren gutxietxia dagoen lanbide batengatik? Antzerki konpainiek subentzioekiko duten menpekotasuna aktoreenganaino iritsi ote da? Zenbateraino da benetan antzerkia behar bat? Antzerkiaren egoera eta kulturarenak orohar parekoak ote dira?

Klaseak amaituta, irakasle eta klasekideak etxera joan eta antzokian gelditu da Ttor-ttor. Antzerkia ikasten jarraitu nahi badu antzokian bertan egin beharko du lo bolada batean, ezkutuan bada ere, ideiak argitu arte bederen.

Une batez Ttor-ttorrek entseguetan atrezzo-rako darabilten patata bat hartu eta eskenatokiaren erdira bota du, sekulako zarata atereaz. Ondoren isiltasuna. Ttor-ttorren irudimenean patata laku batera jaurtitako harria da, uretan zirkulo konzentrikoak sortu dituen harria. Irribarre batez, koaderno hartu eta idazten hasi da, antzokiko isiltasunari begira:

1. zirkulua: SORMENA ERREALITATEAN

Sormena bizitza akzioan da. Sormena gizartean dago eta gizartetik dator, sortzaileak jakin ala ez, jakin nahi ala ez. Sormena harriaren ametsa nahiz amesgaiztoa izan liteke, batez ere harria tanke baten aurka jaurtia denean (Harriak ezin dira jan, baina patatak gogoan elikatzen zaituenak ere defenda zaitzake).

2. zirkulua: ELKARTZEAREN GARRANTZIA

Elkartzea ere arte bat da, zaila bezain funtsezkoa. Elkartzea aukera bat da; aukera zaila izanik erosotasuna, konformismoa eta muturreko norbanakotasuna ditu etsai nagusi. (Aitzakiarik ez, mugak gudan daude).

3. zirkulua: KULTURARTEKO ZUBIA ETA ALDARRIKAPENA

Sormena kultur ezberdinen arteko beldurrak, utopiak, kezak eta aldarrikapenak amankomune-

an jartzeko zubi bat izan liteke. Bi gose moeta daude: gorputzarena eta arimarena. Inperialismo globalizatzaileak biak erasotzen ditu, erasoak erasotu ditzakeenak erasotuz. Biak asetzeari defenditu behar da, hitzak baino areago erasotuz.

4. zirkulua: KALEA ERAKUSLEIHO

Kalea bizitza beraren eskenatokitik oinarrikoena izan liteke. Kalea eskenatokitik naturalena izan liteke baina hori ere txosten, zenbaki, baimen bilakatu dute, bai(a)men. Kalea ez da funtzionarioa. Kaleko artea pankartarik gabeko manifestazioa da. Beharrezkoa denean erakusleioaren kristala apurtu eta kanpora salto egin behar da.

5. zirkulua: INSTITUZIOEN GOTORLEKUA

Kultur Etxeak aterik gabeko gotorleku ederak dira (gehienetan), barruan bizi denaren zerbitzura eta neurrira eginak. Kultura instituzioek abandonatutako haurra da, erreformatarioan sartzea du eskaintza bakarra. Kultur Etxeen erbestean bizi da kultura, sakabanaturik.

6. zirkulua: HIZKUNTZAN

Oraino hizkuntzara goaz, baina batez ere hizkuntzaN bizi gara. HizkuntzaN sortu, maitatu eta

gorrotatzen dugu. HizkuntzaN gozatzen ditugu hitzak nahiz isiluneak. HizkuntzaN ez dago mailua, eskua baizik. Hitza mailua da, ez iltzea, ez hiltzea, ez ISiltzea. Eskua ukatzen duena besamotza da, uka-lo-hondoa.

7. zirkulua: SORMENAREN MILA AURPEGIAK

Sormenak mila aurpegi ditu. Denek dute begirada, ezpainak, mingaina... musikak, dantzak, pinturak, antzerkiak, poesiak, eskulturak, elkartasunak... bakoitzari ematen ahal zaio muxu, zenbaitetan mingaina sartu eztarriraino, eta beti da ezberdina, beti da berria (hortzak garbitu, badaezpada).

Koadernoan baztertu du Ttor-ttorrek. Lehenengo gaua du antzokian lo egiten eta sortzeko grina borborka sentitzen du. Oroimenaren oihartzunez osatzen da antzoki zaharren hustasuna, eta Ttor-ttorri pentsamendu lasaigarri bat etorri zaio burura: batzuetan urrats ero-txiki bat emateak sormenaren sukar asegaitza lasaitzen du, ispiluari egindako irribarreak ezpaineekin idatzitako hitzak bailiran.

Ttor-ttorri butakak, kamerinoak eta eskenatoki zaharra bilakatu zaizkio aterpe. "Ametsak gauatzeko modu bitxia" pentsatu du, oihal beltzen artean lotarako prestatzen delarik.



Ñami mishakunchik kitxueraz "iristear da garaipenaren eguna" esan nahi du

Izenburu hori duen abestia Ekuadorrera joan ziren Mikelazulo kultur elkarteko kideek entzun zuten hango artista eta kideen ahotik. 2.003 urtean eraman zuten aurrera Mikelazulokoek "Zubigegibidezu" izeneko kultur proiektua. "Zer ote da Ekuador?" izeneko ikuskizunarekin, Txatxi eta Kitxua komunitateetan murgildu ziren, talde indigenen borrokak, ametsak eta errealtate politiko-soziala ezagutu nahiean.

Liburu hau bidai horren isla da; hama-bost egunetan idatzitako sentimenduak, marraztutako uneak, antzetzutako hitzak eta entzundako aldarrikapen nahiz elkarriketak. Ekuadorrera baino askoz urrunago, bihotz barneraino egindako bidai